

"ZINE ARRAROA"REN ASTEA ARTELEKUN

Ekainaren 6tik 10era "Zine arraroa" izeneko topaketaren bigarren edizioa burutuko da Artelekun. Proiektzioak, hitzaldiak, tailerrak... izango dira **MAPA kolektiboak** bigarren urtez antolatzen duen ziklo honetan. Guztia, ezarritako generoetan klasifikaezinak diren, ikusteko zailak edo deserosoak izan daitezkeen eta modu periferikoan ekoizten diren ikus-entzunezko proiektuen inguruan sortzen zaizkigun galderei erantzuteko asmoarekin.

Zer ari da gertatzen gaur egungo zinean? Zineaz hitz egiten jarrai dezakegu? Non, nork, nola eta zergatik irudi eta soinu gehiago? Zine Arraroak ikustera, entzutera, usteak zalantzan jartzera, berrikustera, irudikatzaera, eztabaidatzaera eta zinearekin eta ikus-entzunezkoekin liluratzaera gonbidatzen gaitu; etengabeko eraldaketa bizitzen ari den ikus-entzunezko panoramaren ikuspegi zabala eta anitza eskaintzen digu.

Egunez egun, gonbidatu berezi bat arduratuko da eguneko saioa diseinatu eta gidatzeaz; tailerrak proposatuz, norbere lanak edo beste egile batzuenak aurkeztuz, eztabaidatuz eta topaketan parte hartzera inguratzen diren guztiekin iritziak trukatzuz.

Zikloaren egoitza Arteleku izango da nagusiki, eta astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsalde izango dira saioak, 10:00etatik 20:00etara, gutxi gorabehera. Dena den, astelehenean eta ostiralean, eguerdiko 12:30etan proiektzioak **Kutxaren aretoan** izango dira, Donostiako Andia kalean. Topaketako ekitaldi guzietan parte hartu nahi izanez gero aurrez izena ematea gomendatzen da (www.arteleku.net helbidean edo 943 453662 telefonoan), lekua mugatua baita, baina proiektzioak eta hitzaldiak irekiak eta doakoak izango dira.

ZINE ARRAROA #02 PROIEKZIO ETA HITZALDI EGITARAUA

ASTELEHENA, ekainak 6 > OLIVER LAXE

Bere lanak ikusiko dira eta hitzaldi bat emango du laster filmatzen hasiko den bere bigarren film luzearen sortze prozesuari buruz: zine bihurtu aurreko zinea.

Todos vós sodes capitáns film luzearekin Kritikaren Saria jaso zuen iazko Canneseko Zinemaldian, Errealizadoreen Hamabostaldian. Film hori **12:30etan** emando da **Kutxaren aretoan** (Andia kalea).

Oliver Laxe no.w.here zine esperimentaleko plataformako kidea da (www.nowhere-lab.org), S-8mm eta 16mm bezalako formatuen defendatzailea.

ASTEARTEA, ekainak 7 > GARBIÑE ORTEGA

Hitzaldia, era askotako ikus-entzunezko materiala (zine umezurtza, abangoardista, apartekoa...) eta proposamen ausart bat: nola programatu pantailaren aurrean eta atzean.

Garbiñe Ortega Europa eta AEB artean lan egiten duen zine komisarioa da. Hainbat ziklo programatu ditu erakunde ezberdinetarako, hala nola San Francisco Cinematheque, Los Angeles Film Forum, La Casa Encendida (Madril), ARTIUM (Gasteiz) edo Pacific Film Archive.

ASTEAZKENA, ekainak 8 > YOSIGO eta JON URIARTE

Yosigok kartelismoari eta kreditu tituluei buruz hitz egingo du, eta argazkigintzaren eta zinemagintzaren arteko zenbait puntu komun landuko ditu. Jon Uriartek argazkigintzako autoedizioari eta prozesuei buruz hitz egingo du. Bien artean erabili eta botatzeko kamerekin egiteko mini-tailer praktikoa proposatuko digute.

Yosigo argazkilaria da: hondartzak lehen orduan, paisaje abandonatuak, mendiak lainoan eta ez-tokiak. Film bat 24 fotograma segunduko abiaduran ikusten den argazki sail bat baino ez bada, gure buruari egiten diogun galdera da irudi estatikoa ez ote den zine geldoa egiteko modu bat.

OSTEGUNA, ekainak 9 > MIGUEL APARICIO

Miguel Apariciok jardunaldi-lantegi bat proposatzen du eskuekin zinea egiteko. Etxean S-8mm-ko kamera bat duzula eta ez dakizula ba ote dabilen? 16mm-ko film bat errebelatu nahiko zenukeela Artelekuko argazkigintza laborategian? Miguelek asmakizunak eta jakinduria azalduko ditu eta zineaz zikintzea proposatuko digu: S-8mm-ko formatutik 16 mm-koraino, etxean nola errebelatu, gela iluneko likidoak eta Val de Omarri egindako laguntza-eskeak. Ukipenezko esperimendu esperientzia.

Miguel Aparicio zine errealizadorea eta Madrilgo Toma Única jaialdiko zuzendaria da, S-8mm eta 16mm formatuari osorik eskainita dagoen Espainiako jaialdi bakarra.

OSTIRALA, ekainak 10 > JONÁS TRUEBA

Jonás Truebatik Jonas Mekasera, eta iragana eta etorkizuna oraindik izenik ez duen norabaiteko bidea urratzen. Eguna, **Jonás trueba eta Nacho Vegasen elkarrizketa-kontzertuarekin** amaituko da, arratseko **20:00etan Artelekun**. Jonasek Nachoren azken bioklipa zuzendu zuen eta Nachok, Jonasek filmaren soinu bandan parte hartu zuen. Eta abesti guztiak gutaz hizketan...

Jonas Trueba zine zuzendaria eta gidoilaria da. 2010ean bere lehenengo film luzea estreinatu zuen **Todas las canciones hablan de mí** eta aurtengo Goya sarietan zuzendari berri onenaren sarirako proposatuta egon da. Film hori eguerdiko **12:30etan** eskainiko da **Kutxaren aretoan** (Andia kalea).

Kritika eta kronika zinematografikoak idazten ditu *El viento sopla donde quiere* blogean, eta zineari buruzko liburuen editore gisa ere aritu izan da. Horrez gain, **Miniaturas** izeneko ikus-entzunezko eguneroko pertsonal baten egilea ere bada, non pixela eta efimeroa betiko zine klasikoarekin batera agertzen diren. Azken hau Artelekuko zikloan aurkeztuko da estreinakoz.

MAPA kolektiboa, Zine arraroa zikloaren sustatzailea, Víctor Uriarte, Tamara García Iglesias eta Izibene Oñederrak osatzen dute.

Donostia, 2011ko ekainak 2